

BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

5156

EBAZPENA, 2022ko azaroaren 14koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinaren bidez ebazten baita ekintza humanitarioetarako estrategiei 2022rako garapenerako lankidetzaren kargura laguntzak emateko deialdia.

Ekainaren 18ko 90/2019 Dekretuak garapenerako lankidetzaren kargurako ekintza humanitarioko esku-hartzeak arautzen ditu, eta bi jarduera-mota bereizten ditu. Alde batetik, ekintza humanitarioko proiektuak, krisi humanitarioen eraginpeko pertsonak babesteko direnak; eta beste aldetik, ekintza humanitarioko estrategiak, epe ertaineko eta aurrekontu handiagoko esku-hartzeak direnak, zeinek, aipatutako babes-ekintzez gain, erakunde humanitarioak sendotzeko eta euskal herritarrak sentsibilizatzeko bestelako ekintzak ere jasotzen baitituzte.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren 2022ko uztailaren 28ko Ebazpenaren bidez (2022ko irailaren 5eko EHAA, 170. zk.), garapenerako lankidetzaren kargura ekintza humanitarioko esku-hartzeei laguntzak emateko 2022ko deialdia egin zen.

Deialdiaren ebazpenaren 4. artikulua ezarritakoaren arabera laguntzak emateko egin den proposamena ikusita, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Koordinazio Teknikoaren Zerbitzuak laguntza-eskaerak baloratu eta eskaera horien azterketa teknikoa egin eta gero, eta 2022ko azaroaren 14ko batzarrean Artezkaritza Kontseiluari horren berri eman ostean, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honen I. eranskinean jasotako erakundeei ematea Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren 2022ko uztailaren 28ko Ebazpenaren bidez iragarritako laguntzak, eranskin horretan aipatutako zenbatekoan eta eran.

Bigarrena.– II. eranskineko zerrendako erakundeei laguntzak ukatzea, eranskinean bertan adierazitako arrazoiengatik.

Hirugarrena.– III. eranskinean ageri diren erakundeen dirulaguntza-eskaerak baztertzea, eranskinean bertan ematen diren arrazoiengatik.

Laugarrena.– Agintzea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko, herritar oro jakinaren gainean egon dadin.

Bosgarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango da Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Gora jotzeko errekurtsua aurkeztu denetik hiru hilabete pasatzen badira ebazpenik eman gabe, errekurtsua ezetsizat hartu ahal izango da, eta administrazioarekiko auzien bidea zabalik geratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 14a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.

2022ko azaroaren 25a, ostirala

I. ERANSKINA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ESKABIDEAK

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Izenburua	Herrialdea	Puntuak	Dirulaguntza
EHE-2022BA/0005	Fundación Mundubat-Mundubat Fundazioa	Garantizando el derecho a la alimentación de la población joven refugiada saharai. Programa de almuerzos escolares en escuelas de educación secundaria	Saharako Errepublikak Demokratikoa	70	799.994,58 €
EHE-2022BA/0001	Farmacéuticos Mundi	Acercando la salud sexual y reproductiva a poblaciones vulnerables con un foco especial en población adolescente y mujeres desplazadas supervivientes de violencia sexual y basada en género	Kongoko Errepublikak Demokratikoa	65	800.000,00 €
EHE-2022BA/0006	Asociación Comité Español de la UNRWA	Estrategias de empoderamiento para reducir la vulnerabilidad de las mujeres refugiadas de Palestina en Líbano (Fase III)	Libano	64	800.000,00 €
EHE-2022BA/0009	España con ACNUR	Protección y asistencia en respuesta a la violencia sexual y de género para población residente en el este de la República Democrática del Congo (RDC)	Kongoko Errepublikak Demokratikoa	59	800.000,00 €

2022ko azaroaren 25a, ostirala

II. ERANSKINA

ESKABIDE EZ ONARTUAK DIRU-FUNTSAK AGORTZEAGATIK

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Izenburua	Herrialdea	Arrazoia
EHE-2022BA/0002	Nazioarteko Elkartasuna-Solidaridad Internacional	Estrategia integral para la protección de los derechos humanos, el empoderamiento y los medios de vida de las mujeres refugiadas palestinas y sirias en el sur del Líbano	Libano	Funtsak agortzeagatik
EHE-2022BA/0003	Cruz Roja Española	Mejora de la situación humanitaria de las personas refugiadas de Sudán del Sur y de las comunidades de acogida de Sudán en el estado fronterizo del Nilo Blanco (Sudán)	Sudan	Funtsak agortzeagatik
EHE-2022BA/0004	UNICEF Comité Español	Fortalecimiento del sistema integrado de gestión de casos sensible al género para niñas y niños no acompañados y víctimas de violencia en el noreste de Nigeria	Nigeria	Funtsak agortzeagatik

2022ko azaroaren 25a, ostirala

III. ERANSKINA
BAZTERTUTAKO ESKABIDEAK

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Izenburua	Herrialdea	Arrazoia
EHE-2022BA/0007	Asamblea de Cooperación por la Paz	Asistencia humanitaria, protección de los derechos y de la dignidad y búsqueda de soluciones duraderas para la población de Niamey (Niger) damnificada por los efectos del cambio climático	Niger	Ez dira betetzen 90/2019 Dekretuaren 16.1 artikulua Ekintza Humanitarioko Estrategian ezarritako baldintzak.
EHE-2022BA/0008	Fundación Alboan	La vida transfronteriza: construcción de paz y reconciliación como mecanismo de protección en las fronteras de Colombia-Ecuador	Kolonia Ekuador	Ez da betetzen deialdiaren ebazpenaren xedapen gehigarrian eta 90/2019 Dekretuaren 4.2.b) artikuluan jasotako baldintzak: 2022ko ekitaldian erakunde batek jaso ditzakeen dirulaguntzen gehieneko zenbatekoarena eta ekintza humanitarioko estrategia bat onartzeko eskatutako gutxieneko zenbatekoarena.